

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktuaren izena: IZKAPE.

Izkaperen helburuak:

Birziklatzea, herriko produktuen sustapena eta mundu hobe baten aurkikuntza da proiektu honen helburua. Baita pertsonak planetaren etorkizun katastrofikoari buruzko ideia barneratzea eta aldaketa klimatikoaren ondorioz izandako kalteen aurrean zerbait egin dezakegula azaldu nahi dugu. Honetarako eta herriko produktuak sustatzeko sistema bat sortu dugu.

Pertsonalizazioa: Ideia berria dela, aurretik inork ez duela egin.



XEDE-PUBLIKOA.

Kutsadura murriztu, gehiago birziklatu, baserriarrei lana erraztu (Merkatuko produktuak sustatu, familia enpresei sustatu...) eta jendea kontzientziatu ingurumena zaintzen ari dela eta horrez gain etekinak aterako dituztela.

Honela laburbil daitezke kolektibo horren ezaugarriak:

- Pertsona guztiei zuzendua, jendea birziklatzera bultzatu.
- Diseinuaren eksklusibotasun maila altua: Orain arte inork sortutako birziklatze- sistema. Etekin asko dituena.
- Taldeen koordinazioz lan egitea gure taldearen ezaugarrietako bat da.
- Etorkizunean pentsatzea oso garrantzitsua dela uste dugu, gaur ia garrantzirik ez duen arazo txikiak etorkizunean oso larriak bihurtu daitezke.
- Proiektu berri bat da oraindik inori bururatu ez zaiona.
- Baserrien eta herriko merkatuaren eta hemengo produktuen sustapena ekarriko du.
- Etorkizuneko ikuspegia du, esan dugun moduan, etorkizunean erreflexionatzeko.
- Teknologia berrien erabilera, sortu beharreko edukiontzia teknologia berriez hornituta egongo dira.



FUNTZIONAMENDUA:

Funtzionamendu konplexu bat duela onartu behar dugu baina koordinazioz eta ahalik eta baliabideei eraginkortasun handiago ateraz erraz lortu dezakegu proiektua aurrera eramatea.

Lehenik eta behin erosi berri dugun lokalean dena antolatu ondoren, baserritarrekin eta familia enpresekin harremanetan jarriko gara lokal honetan bilerak eginez. Ondoren Sasietarekin harremanetan jarriko gara eta hemengo teknikari eta ingeniari espezializatuek sortuta dauden edukiontziak moldatu egingo dituzte, detektore automatiko bat hauen barruan jarriz, benetan zaborra bota duzula egiaztatzeko. Hauek herriko gunee jendeztatuenetan jarriko ditugu. Proiektua hasteko prest egongo da. Biztanleak etxean jada duten txartelarekin joango dira zaborra botatzea, hemengo alde batean txartela sartzeko tokia egongo da eta hemen sartzean zaborrontzia ireki egingo da. Ondoren, zaborra barrura bota eta detektorea benetan zaborra sartu denean detektatu duenean puntu bat gehituko dio automatikoki txartelari. Soinu txiki bat entzungo da operazioa ondo atera dela adierazteko eta txarteleko puntuaren truke txeke bat lortzeko prest zaudela. Geroago, txartelarekin, poltsak banatzen dituzten makinetan bigarren erabilera martxan jarriko litzateke txartela eskaneatu ondoren txeke bat lortzen dugunerako. Txeke hau lortzearen aukera kostua izango litzateke txarteleko puntua galtzea, baina gehiago lortu daitezke zaborra botatzen den bakoitzerako. Txeke honekin azokara abiatu gaitezke tiket honen truke baserritar eta familia enpresen produktuak lortu ditzakegula jakinda.

Baserritarrek irabaziko duten dirua udaletik zuzenean lortuko dute.

